BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

3145

EBAZPENA, 2013ko ekainaren 14koa, Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordearena, antzerki-produkziorako laguntzak emateko Balorazio Batzordearen kideak izendatzen dituena eta Batzordearen osaera argitaratzen duena.

Ikusi da Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuaren 2013ko maiatzaren 8ko Agindua, hots, antzerki-produkziorako laguntzak emateko araudia ezartzen duena.

2013ko maiatzaren 8ko Aginduaren 11. artikuluak jasotzen du ezen, aipaturiko diru-laguntzak emateko balorazio batzorde bat osatuko dela eta batzorde horren kideak izendatzea Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordearen Ebazpen bidez emango dela.

Horiek horrela, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Antzerki produkziorako laguntzak emateko osatuko den Balorazio Batzordearen kideak izendatzea eta Batzorde horren osaera argitaratzea. Beraz, Batzordeak honako kide hauek izango ditu:

Lehendakaria: Clara Montero Tellechea andrea (Kultura Sustatzeko zuzendaria).

Batzarkideak:

– Laura Landa Calvo andrea.
– Amaia Ibáñez Zalba andrea.
– Iñaki Larrañaga Urien jauna.
– Olatz Beobide Egaña andrea.
– Carlos Morán Arostegui jauna.
– Francisco Javier López Landatxe jauna.
– Marta Monfort Ayestaran andrea.

Idazkaria: José Luis Ibarzabal Eguibar jauna (Kultura Saileko teknikaria).

Bigarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritza Aldizkarian argitara dadin agintzea, jende guztiak horren berri izan dezan.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko ekainaren 14a.

Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordea,
JOSÉ ÁNGEL MARÍA MUÑOZ OTAEGI.